

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Osoko Bilkurak 2022ko abuztuaren 2an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, Zuiako kaleko salmentarako ordenantza eta oinarri arautzaileak onesten dira

Zuiako Udalak, 2022ko abuztuaren 2an egindako ohiko osoko bilkuran, Zuiako kaleko salmentarako ordenantza eta oinarri arautzaileak onestea erabaki zuen.

Murgia, 2022ko irailaren 20a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

KALEKO SALMENTA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

LEHENENGO TITULUA. APLIKAZIO EREMUA ETA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ordenantza honen xedea Zuiako udalerrian kaleko salmenta arautzea da.

2. artikulua. Kaleko salmentaren kontzeptua

1. Kaleko salmentatzat hartzen da ohiko edo noizbehinkako saltzaileek, merkataritza-establezimendu batetik kanpo, postu eta instalazio desmuntagarrietan edo horiek gabe, bide publikoan edo udalerriko espazio libre edo irekietan egiten duten merkataritza-jarduera.

2. Kaleko salmenta azoka txiki edo aldizkako edo noizbehinkako azoketan egingo da, bai eta denboraldiko postuetan ere. Betiere udalaren nahitaezko baimena lortu beharko da, eta baimen hori gabe ezingo da inolako salmentarik egin.

3. Erabat debekatuta dago zutikako salmenta, manta bidezko salmenta eta ibilgailu edo denda-kamioien bidezkoa.

4. Hala eta guztiz ere, baimena eman ahal izango zaie elikagai prestatuak eta edariak saltzeko prestatutako furgoneta edo ibilgailu bereziei, bai jaiak direla eta, bai horretarako baimena duten azoka txikiak direla eta. Erregularitasunez eman ahalko da baimena, denboraldian edo urtean behin.

5. Hauek ez dira inola ere kaleko salmentatzat hartuko:

- Etxez etxeko salmenta.
- Urrutiko salmenta.
- Aldizkako salmenta.
- Makina automatikoen bidezko salmenta.

3. artikulua. Kaleko salmenta motak

1. Ordenantza honen aplikazio eremuari lotutako kaleko salmentaren modalitateak hauek dira:

A) Aldizkako azokak: salmenta-postuen multzoak dira, tradiziozkoak edo ezarri berriak, eta espazio publiko jakin batzuetan egiten dira, astean bi egunetan gehienez. Zuiako udalerrian azoka hauek dituzte ezaugarri horiek:

— Ahal dela, hilabete bakoitzeko bigarren igandean egingo den azoka. Murgiako Udaletxe plazan izango da, goizeko ordutegian. Azoka horrek 10:30etik 15:00etara bitarteko ordutegia izango du, gutxi gorabehera.

B) Noizbehinkako azokak: ferietan, jaietan, herri-jardunaldietan edo edozein izaerako herri-ekitaldietan aurrez zehaztu gabeko espazio publikoetan instalatzen diren salmenta-multzoak dira.

Eskulangintza-azokak ere mota horretakoen artean sartzen dira. Horiek udal-baimenen jabe diren pertsona guztientzat amankomunak diren jardueraren edo jardueren babesean sortutakoak dira. Azoka horiek ez dira ohikoak izaten eta horien kokapena eta postu kopurua aldeztatik erabakiko dira, Alkatetzak emango duen ebazpenaren bidez.

Eskulangintza-azoketan, baimena ematen da saltzaileak edo beste norbaitek egindako eskulangintza-produktuak saltzeko, hala nola larruzko produktuak, zeramikazkoak, margolanak, eskulturak, dekoraziozko objektuak eta abar, bai eta sasoiko elikagai galkorrak saltzeko edo nekazariek eta abeltzainek beren produktuak zuzenean saltzeko ere, betiere elikagaiei dagokienez indarrean dauden osasun-araudia betetzen badute eta/edo horrek salmenta debekatzen edo mugatzen ez badu.

C) Denboraldiko postu finkoak: denboraldiaren arabera, Zuiako espazio publikoko hainbat tokitan produktu jakin batzuk merkaturatzeko instalatzen diren salmentarako postu bereziak dira.

D) Furgonetan edo ibilgailu berezien bidezko salmenta: elikagaiak eta edariak merkaturatzeko erabiltzen diren ibilgailuak dira, furgonetak edo bereziak. Jaiak, aldizkako eta noizbehinkako azoka txiki eta erregularrak direla eta baimendu ahal izango dira.

2. Udalari honako ahalmen hauek dagozkio:

1) Baimena ematea aldizkako edo noizbehinkako azokak egiteko edo denboraldiko postu finkoak jartzeko edo furgonetan edo ibilgailu berezien bidez saltzeko, ordenantza honetan hasiera batean aurreikusita egon edo ez.

2) Aldez aurretik emandako baimenaren baldintza hauek aldatzea, aldizkako edo noizbehinkako merkatuak egiteko, denboraldiko postu finkoak jartzeko edo furgonetan edo ibilgailu berezien bidez saltzeko:

- Kokalekua.
- Postuen eta/edo emandako baimenen kopurua.
- Postuen eta/edo emandako baimenen okupazio-azalera.
- Baimendutako salgaiak.
- Instalazioen eredua.

3) Ordenantza hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantzak, arazoak edo interpretazioak ebaztea.

BIGARREN TITULUA. KALEKO SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO POSTUAK ETA PRODUKTUAK

4. artikulua. Sal daitezkeen produktuak, orokorrean

1. Ez da inolako baimenik emango, baldin eta aplikatzekoak diren legezko eta erregelamenduzko xedapenen aurka badago produktua.

Era berean, salmentarako baimena mugatu ahal izango da kontsumitzaileen edo erabiltzaileen higienarekin, osasun publikoarekin eta/edo segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik.

2. Baimen bakoitzak dagokion udal-baimenean berariaz adierazitako produktuak saltzeko gaikuntza ematen du, bakar-bakarrik.

3. Udalak mugatu egin ahal izango ditu salmenta-produktuak, merkaturatzeko baimendutako pertsonen kopurua edo dagokion jarduerako beste edozein elementu, jarduera garatzen den eremuko merkataritza-taldeari, herritarren kontsumo-eskaerari edo hori justifikatzen duen beste edozein inguruabarri erantzuteko baimena eman ondoren.

5. artikulua. Sal daitezkeen elikagaiak

1. Elikagaien kaleko salmenta baimendu ahal izango da, baldin eta indarrean dagoen araudiak erregimen horretan saltzea debekatzen edo mugatzen ez badu, edota, agintari eskudunen iritziz, osasun arriskurik eragiten ez badu.

Sasoiko produktu galkorren kasuan eta nekazariek beren produktuak zuzenean saltzen dituztenean, noizbehinkako edo aldizkako azoketan soilik baimendu ahal izango da, eska daitezkeen osasun-baldintzak bete ondoren.

2. Baimenen titularrek zorrotz beteko dituzte merkaturatzen dituzten produktuen araudi tekniko-sanitarioak eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

Horretarako, ezin izango dira honako produktu hauek saldu: haragi, hegazti eta ehiza freskoak, hoztu eta izoztuak, arrain eta itsaski freskoak, hoztu eta izoztuak, esne pasteurizatua, gazta freskoak, gaztanbera, esnegaina, gurina, jogurta eta beste esneki fresko batzuk, pastel eta opil beteak edo garnizioz hornituak, pasta fresko eta beteak, antxoa ketuak eta beste erdikontserba batzuk, bai eta, beren ezaugarri bereziengatik eta agintari eskudunen iritziz, osasun-arriskua dakarten beste produktu batzuk ere.

Hala ere, lehen aipatutako produktuak saldu ahal izango dira, osasun-agintari eskudunek emandako irizpideen arabera, hozteko instalazio egokiak daudenean eta behar bezala ontziratuta kontserbatzen direnean.

Kontsumorako elikagaiak prestatzeko produktuak edo lehengaiak jatorri identifikagarrikoak izango dira. Etiketatzea egokia izango dute, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Inoiz ere ez da onartuko iraungitze-data igarota edo kontserbazio-egoera txarrean duen produkturik.

3. Elikagaiekin kontaktuan dauden langileek garbitasun pertsonal ahalik eta txukunena izango dute une oro, eta elikagaien higieneari buruzko prestakuntza-ziurtagiria izango dute. Era berean, ahalik eta garbiketa-neurri gehien jarraitu beharko dituzte manipulazio-lanak egitean, batez ere eskuen higiene egokia ahalbidetzen duten elementuen bidez.

Saihestu egingo dira kutsadura gurutzatuak, produktuak zuzenean eguzkitan edo giro-tenperaturan edukitzea eta abar.

4. Eskaintako produktuen prezio-zerrendak jendaurrean eta irakurtzeko moduan erakutsiko dira.

6. artikulua. Instalazioak eta postuak

1. Azoka bakoitzaren funtzionamendu-erregelamenduak zehaztuko ditu postuen kopurua eta horietako bakoitzaren salmenta-gaiak, horien dimentsioak eta aplikatu behar diren gainerako baldintzak. Erregelamenduzko arautzerik ez badago, adjudikazioa arautzen duten oinarrien arabera zehaztuko dira baldintzak, edo, hala badagokio, baimena ematen duen ebazpenaren arabera.

2. Udalak egokiagotzat jotzen badu instalazioak edo postuak jartzea igandeetako aldizkako azokan parte hartzen duten eskulangileentzat, horiek erabiltzeko betebeharra izango dute (udalaren berariazko baimenik ezean), eta dagokion kanona ordainduko dute alokairu gisa, halakorik balego.

3. Baimenen titularrek zehazten diren baldintzetara egokitu beharko dituzte euren instalazioak, beti ere kontuan izanik instalazio desmuntagarri eta garraigarriak izan beharko dutela, eta segurtasun, osasungarritasun eta apaintasun publikoko baldintzak bete beharko dituztela.

HIRUGARREN TITULUA. KALEKO SALMENTAN JARDUTEKO BAIMENAK**7. artikulua. Kaleko salmentan jardun ahal izateko betekizunak**

1. Zuiako udalerrian kaleko salmenta egiteko, udalaren berariazko baimena behar da.
2. Kasu zehatz bakoitzean eskatu daitezkeen baldintza gehigarriak alde batera utzi gabe, kaleko salmentan jarduteko udal-baimena jasotzeko, honako betekizun hauek bete behar dira:
 - 1) Salgaien ekoizle edo egile izatea.
 - 2) Titularrak alta emanda egon behar du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe egokian eta zerga hori ordainduta eduki behar du.
 - 3) Titularrak alta emanda egon behar du Gizarte Segurantzaren araubide egokian eta kuota guztiak egunean eduki behar ditu. Betekizun hori bete beharko dute, halaber, euren ardurapeko langileek eta laguntzaileek.
 - 4) Eskulangileen kasuan, egunean egon beharko dute Gizarte Segurantzari dagokionez. Gainera, eskulangilea dela eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko dute, epigrafe egokian alta emanda.
 - 5) Titularrak egunean izan beharko ditu Zuiako Udalarekiko zerga-betebeharrak, bai eta bestelako betebeharrak ere.
 - 6) Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, bizileku- eta lan-baimen baten titularra izan beharko du, edo udalerrian bizitzeko eta lan egiteko berariaz gaitzen duen beste edozein dokumentaziorena.
 - 7) Ez du izango indarrean dagoen legeriak ezarritako ezgaitasun- edo bateraezintasun-arrazoirik.
 - 8) Merkaturatutako produktuei eta horiek saltzeko baimendutako instalazioei dagokienez, titularrak bete egin beharko ditu berariazko araudietan ezarritako betekizun higieniko-sanitarioak edo bestelakoak.
 - 9) Kontsumitzaileen eta/edo erabiltzaileen erreklamazioei arreta emateko eta erantzuteko helbide bat ezarri eta mantendu beharko du.
 - 10) Kaleko salmentaren arloan aplikatzekoa den araudiaren arabera eska daitezkeen beste edozein betekizun beteko du.

3. Baimena indarrean dagoen bitartean, titularrak bete egin beharko ditu udalerriko kaleko salmenta-postu baten titularitatea izateko eskatzen diren betekizunak, modalitatea edozein dela ere.

8. artikulua. Udal-baimenak

1. Aldizkako azoketako postuen esleipena arautzen duten oinarrien arabera emango dira azoka horietan kaleko salmentan jarduteko udal-baimenak.
2. Noizbehinkako azoketan, denboraldiko postu finkoetan eta furgoneta edo ibilgailu berezien bidezko salmentan aritzeko baimenak, interesdunak aldez aurretik hala eskatuta emango dira. Eskaera horretan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira (l. eranskina):
 - Titularraren identifikazioa (izen-abizenak, helbidea eta NAN edo AIZ –IFK eta sozietate-izena, pertsona juridikoa bada–) eta, hala badagokio, jarduera egingo duen laguntzailearena edo langilearena.
 - Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, bizileku- eta lan-baimen baten titularra izan beharko du, edo udalerrian bizitzeko eta lan egiteko berariaz gaitzen duen beste edozein dokumentaziorena.
 - Udal-baimena eskatzen den azokaren izena.
 - Baimendu beharreko salgaiak.
 - Baimentzeko eskatutako egunak eta ordutegiak.

- Eskatutako okupazio-azalera.
- Instalazioaren ezaugarriak.
- Elikagaiak saltzeko postu bat instalatzeko baimena eskatuz gero, eskatzailearen eta salmenta gauzatuko duten langileen elikadura-higieneko prestakuntza-ziurtagiria.
- Kaleko salmentarako aplikagarria den edozein motatako araudiak eskatzen duen beste edozein betekizun.

3. Baimen orok berekin ekarriko du titularrak jarduera modu pertsonalean egiteko betebeharra, dela zuzenean, dela ezkontidearen, titularrarekin antzeko harreman afektiboa duen pertsonaren, seme-alaben bidez edo behar bezala baimendutako eta Gizarte Segurantzaren alta emandako enplegatu edo laguntzaileekin. Nolanahi ere, baimena izateko, identifikazio-txartel bat emango da. Une oro ikusgai izan beharko da salmentarako postu edo ibilgailuan, eta txartela indarrean dagoen bitartean eskatu ahal izango da.

4. Kaleko salmentaren azoka bakoitzean, pertsona bakoitzeko baimen bakarra emango da, modalitatea edozein dela ere. Hortaz, kaleko salmentako bi azoka edo gehiago egiten badira, baimenak ezin izango dira aldi berean eman, eta, hala, horietako bat aukeratu beharko da.

5. Baimenak nahierarakoak izango dira eta, beraz, udalak bidezko iruditzen zaionean ezeztatu ahal izango ditu, baimena emateko arrazoiak desagertu direla uste badu, interes publikoko arrazoiak badaude eta/edo ordenantza hau eta arau ezargarriak betetzen ez badira. Baimena ezeztatzeak ez du kalte-ordaina hartzeko eskubiderik sortuko.

9. artikulua. Baimenen iraupena

1. Aldizkako azoketan kaleko salmentan aritzeko baimenek urtebeteko (1) indarraldia izango dute, eta ondoz ondoko urteetan luzatu ahal izango dira, gehienez ere bost (5) urtera arte.

2. Noizbehinkako azoken esparruan salmenta gauzatzeko baimenen iraupena ekitaldi eta/edo jaiegun zehatzena izango da.

3. Postu finko, desmuntagarri edo garraiagarrietan saltzeko baimenek, bai eta furgoneta edo ibilgailu berezien bidezko salmentek ere, udalak baimenean bertan ezarritako indarraldia izango dute. Inola ere ezin izango da sei (6) hilabetetik gorakoa izan.

10. artikulua. Baimenak azkentzea

Zuiako udalerrian kaleko salmenta egiteko udal-baimenak honako arrazoi hauengatik azkentuko dira:

- 1) Baimenean emandako epea amaitu delako iraungitzea.
- 2) Titularrak uko egitea.
- 3) Titularraren heriotza, gerora sortutako ezgaitasuna edo erretiroa. Kasu horretan, ezkontideak edo titularrarekin antzeko harreman afektiboa duen pertsonak egin dezake, bai eta seme-alabek edo postuan lanean jardun duen baimendutako pertsonak ere, betiere azken kasu horretan haren jarduera ekonomiko profesional nagusia bada eta Gizarte Segurantzaren zein Jarduera Ekonomikoaren gainera Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen badu.
- 4) Baimena galtzea dakarren administrazio-zehapena ezartzea.
- 5) Baimena lortzeko eta izaten jarraitzeko eskatzen diren baldintza guztiak edo horietakoren bat galtzea.
- 6) Aldizkako azoken kasuan, 12 hilabeteko epean azokara ez joatea ondoz ondoko 4 astez edo txandakako 8 astez, udalak aldeztu aurretik horren berri izan gabe.
- 7) Ezeztatzeagatik.

8) Kokapen eta maiztasun finkoko azoka kentzea, edo udalerrian kaleko salmenta aritzea debekatzea.

9) Elkarren arteko adostasunez.

10) Kanona edo beste udal-eskubide batzuk ez ordaintzea, bai eta emakidaren edo baimenaren titularrak egindako beste edozein ez-betetze larri ere, horiek eman zituen organoak adierazitakoak.

11) Araudian aurreikusitako beste edozein arrazoi, bai eta baimenak eta emakidak arautzeko baldintza orokor edo berezietan aurreikusitako beste edozein arrazoi ere.

LAUGARRENTITULUA. KALEKO SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua. Kaleko salmentan aritzeko udal-baimenaren titularren eskubideak

Zuiako udalerrian kaleko salmentan jarduteko udal-baimena dutenek eskubide hauek izango dituzte:

1) Udalaren ebazpenaren arabera postua bete eta jarduera gauzatzeko eskubidea. Ebazpen hori berariaz jakinarazi beharko zaio titularrari.

2) Udalaren eskutik, baimendutako pertsonaren datuak bilduko dituen identifikazio-txartela jasotzeko eskubidea. Argazkia, emandako postuaren datuak eta garatu beharreko jarduera ere bilduko dira bertan.

3) Jarduera jendaurrean eta modu baketsuan egiteko eskubidea, udalak baimendutako jardueraren ebazpenean ezarritako ordutegian eta bertan ezarritako baldintzak betez.

4) Postu baimendua jarri ohi den azoka kentzen bada, udal-baimenaren titularrak haren ordeztatzen den azokan beste postu bat lortzeko lehentasuna izango du; hala gertatzen bada, iraungitako baimenaren baldintzek bere hartan jarraituko dute, ahal dela.

5) Beren eskubideak eta interesak defendatzeko egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea, jarduera gauzatzeko baimena ematen duen azokak hobeto funtziona dezan.

6) Postuan bertan saltzen jarduteko eskubidea, titularrak berak, ezkontideak eta seme-alabek, jarduera horretarako enplegatuta dituenak, baldin eta titularrak Gizarte Segurantzaren alta emanda baditu. Baimena eskatzeko unean, atal honetan aipatzen diren pertsonen nortasuna jakinarazi beharko zaio udalari.

12. artikulua. Betebeharrak

Udal-ebazpen zehatz bakoitzean adierazitakoei kalterik egin gabe, kaleko salmentarako udal-baimenen titularrek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

1) Ezin izango da egin udal-ebazpenean berariaz baimendu ez den jarduerarik. Era berean, ezingo da ebazpen horretan jasotakoez bestelako merkantziarik edo produkturik eskaini.

2) Salmenta postu edo instalazio desmontagarrietan egin behar dute, edota 11. eta 12. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten denda-kamioietan, hau da, garraiatzen errazak eta jarduera horretarako egokiak direnetan (edo, hala badagokio, udalak eskura jartzen dituen postuetan).

3) Jarduera gauzatzeko udal-baimenaren titular bakoitzak berariaz horretarako esleitutako espazioa baino ezin izango du erabili.

4) Postuen titularrek erraz ikusteko moduko tokian jarri beharko dute udal-baimena. Hala egin ezean, edo baimenean ezarrita ez dagoen zerbait saltzen badute, postua kautelaz itxiko da eta, gainera, baliteke zehapen espediente hastera ere.

5) Saltzaileek, merkataritza jarduera gauzatzean, indarrean dauden unean uneko arauetan merkataritzaz, merkatuko diziplinaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaz xedatutakoa bete behar dute.

6) Postuetan eskaintzen diren produktuen prezioak argiro adierazten dituzten txartelak eta etiketak jarri behar dituzte. Salgai dauden produktuen prezioa argi eta garbi azaldu behar da, betiere arlo honetako indarreko legeria betetzen dela. Soltean saltzen diren produktueta edo salmenta-prezioa elikagaien kantitate edo bolumenaren arabera zehazten den produktueta, prezioa neurketa-unitatearen arabera adieraziko da.

7) Halaber, salgai guztiak agerian eduki behar dituzte, eta ezin dute zati bat bereizi, hautatu ez ezkutatu.

8) Postuen titularrek bertan egon behar dute azokaren funtzionamendu orduetan; behar bezala baimendutako pertsonak ere egon daitezke berarekin.

9) Behar bezala akreditatutako udal-langile edo -agintariek eskatuta, eskatzen dizkieten agiriak erakutsi behar dizkiete saltzaileek.

10) Kaleko salmentan jarduten dutenen ibilgailuak ezin dira egon azoka barruan, ez eta postuaren ondoan ere. Horretarako diren tokietan aparkatu beharko dira. Denda-kamioiak debeku horretatik kanpo daude. Ibilgailuak salgaien zamaianak egiteko behar den denboran soilik egon daitezke azoka barruan.

11) Salmentarako udal-baimena duten pertsonak salmentako esparruak eta tokiak errespetatu behar dituzte; inolaz ere ezin dira aritu saltzen merkataritzako edo industriako toki publiko edo pribatuetaarako sarreretan. Horrez gainera, ezin dute postua jarri erakusleihoetan edo erakusmahaietan zer dagoen, trafiko seinalea edo bestelako adierazgarriren bat ikustea eragozten duen tokian. Orobat, ezin dira jarri kale gurutzaguneetan, ez oinezkoentzako pasaguneetan, ez etxebizitza, denda edo ibilgailuen sarreretan.

12) Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten postuek arauzko baskula eta metroak eduki behar dituzte.

13) Salmentan jarduten dutenek salerosketaren ordainagiri edo egiaztagiria eman behar diete eskatzen duten erosleei; bertan datu hauek adierazi behar dira gutxienez:

Datu pertsonalak.

NAN edo IFZ.

Helbidea.

Produktua(k).

Prezioa eta data.

Kantitatea.

Sinadura.

14) Ezarritako postutik kanpo ezin da ezer saldu, eta geltokien arteko pasabideetan ezingo da zirkulazioa oztopatu.

15) Merkataritza jardueraren ondorioz sortzen diren zaborrak, ontziak, bilgarriak eta gainetarako hondakinak, gertuen dauden hondakinak kudeatzeko edukiontzietan gordeko dira. Edukiontzi horien kokalekua ezin izango da aldatu kaleko salmentako jardueraren eraginez.

16) Postuko instalazioak ondo artaturik mantendu beharko dituzte.

Postuen titularrek zoruan, zuhaitzetan eta kaleko argietan sortzen dituzten kalteak ordaindu beharko dituzte.

17) Debekatuta dago salgaien eskaintzak aldarrikatzeko ozengailuak erabiltzea.

18) Udal-baimenen titularrek bete egin behar dituzte kaleko salmenta baimentzen deneko azokaren funtzionamendu onerako udal-agintariak eta -funtzionarioek ordenantza hau eta gai honi buruzko indarreko legeria ezarri ematen dizkieten agindu guztiak.

19) Kaleko salmentarako indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betebeharrak, edota etorkizunean ezartzen dituenak, ezargarri izango zaizkie udal-baimenen titularrei, eta legeria hori zaintzeko eta betetzeko ardura herri administrazio eskudunetako organo egokiek izango dute.

SEIGARRENTITULUA. IKUSKAPEN-ARAU BIDEA, ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK EZARTZEA. ZEHAPEN-PROZEDURA

KAPITULUA. IKUSKAPEN-ZERBITZUA

13. artikulua. Zuiako udalerrian kaleko salmentaren jardura gainbegiratu eta ikuskatzeko zerbitzua

1. Udalak, lehenik, ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta kaleko salmentaren alorrean unean-unean indarrean dauden higie, osasun eta segurtasuneko arauak jagon eta betearaziko ditu; nolabehere, beste herri administrazioek euren eskumenak baliarazi ahal izango dituzte.

2. Udalak, bere jagoletza eginkizunak egitean, produktu, jardura eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, bai eta saltzaileei horiei buruzko behar adina informazio eman ere.

Espedienteari hasiera emateko agintzen duen agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea erabaki dezake, aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzetan, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen badute, edo kalitatean edo kuantitatean iruzurrezkoak, faltsututakoak, bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxienezko baldintzak betetzen ez dituztenak badira.

II. KAPITULUA. ZEHAPEN-PROZEDURA

14. artikulua. Zehatzeko eskumena

Merkataritzako Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen arabera Eusko Jaurlaritzako organoek zehapenak ezartzeko duten eskumenari kalte egin gabe, udalak ezarriko dizkie zehapenak ordenantza honetako xedapenak hausten dituztenei.

15. artikulua. Zehapen-prozedura

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei zehapenak ezartzeko prozedura honako lege hauetan arautzen diren printzipio eta izapideen arabera izango da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, eta/*edo horiek osatzen edo ordeztzen dituen araudia.

16. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak

1. Arau-hausteen erantzule izango dira egiteen edo ez-egiteen egile materialak diren pertsona fisikoak eta/edo juridikoak. Egiletza modu solidarioan luzatuko zaio baimenaren titularrari, hala badagokio, bere ordezkaren, laguntzailearen, ordezkariaren edo langilearen egiteen eta ez-egiteen ondoriozko erantzukizunagatik, beste erantzukizun solidario edo subsidiario batzuei kalterik egin gabe.

Egiteen egilea 18 urtetik beherako pertsona bat denean, haren aita, ama, tutorea, harrera-gileak eta legezko edo egitezko zaintzaileak izango dira erantzule solidarioak.

Arau-hauslea (edo arau-hausleak) indibidualizatzeko ikerketa-eginbide egokiak egin ondoren, ezin bada zehaztu arau-hausleak (edo arau-hausleek) zenbateraino hartu duen parte arau-hauste horretan, erantzukizuna solidarioa izango da beti.

2. Arau-hausleak izango dira arau-hausteen ondorioz pertsonen edo ondasunen eragiten zaizkien kalteen erantzule. Ondasun publikoak ere barne hartuko dira, hala nola espazio publikoa bera eta hiri-altzarien elementuak.

Ondasun publikoen kalteen kasuan, arau-hausleak berak konpondu ezean, udalak alde aurretik baimena emanda, zerbitzu tekniko eskudunek tasatu eta konpondu egingo dituzte, haren kontura.

III. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

17. artikulua. Arau-hauste motak

1. Kaleko salmentaren arloko arau-haustetzat hartuko dira ordenantza honetako artikuluen eta/edo baimenek ezartzen dituzten baldintza zehatzen aurkako egite eta ez-egiteak.

Ondore horietarako, egintza independente zehagarritzat hartuko da ordenantza honetan xedatutakoaren eta/edo baimenek bete beharreko baldintza zehatzen aurkakoa den denboran edo espazioan egindako jarduketak bakoitza.

2. Kaleko salmentaren arloko arau-hausteak honela sailkatzen dira: arau-hauste arinak, arau-hauste astunak eta arau-hauste oso astunak.

3. Zehapen-araubide hori alde batera utzi gabe, dagokion sektoreko legerian tipifikatutako arau-hausteei bertan ezarritako zehapenak bete beharko dituzte.

18. artikulua. Arau-hauste arinak

Ordenantza honen ondoreetarako, arau-hauste arintzat hartuko dira honako hauek:

a) Bide publikoan ordenantza honetan eskatzen diren ezaugarri teknikoak betetzen ez dituzten elementuak instalatzea.

b) Baimendutako kokapenetik kanpo edozein salmenta-elementu, instalazio-elementu edo antzeko elementu egotea.

c) Baimenean ezarritako ordutegia ez betetzea, salbu eta arau-hauste astuna edo oso astuna tipifikatzen denean.

d) Apaingarri eta garbitasunik eza.

e) Hiri-altzarien elementuak hondatzea.

f) Espazio publikoa kaleko salmentarako erabiltzeko udal-baimena ez erakustea, alde aurretik eskatuta.

g) Ordenantza honetan jasotako xedapenak ez betetzea, zuzeneko garrantzi ekonomikorik gabe eta kontsumitzaileei kalterik eragin gabe, betiere astuntzat edo oso astuntzat kalifikatuta ez badaude.

h) Ordenantza honetan ezarritako edozein baldintza ez betetzea, falta astuntzat edo oso astuntzat hartzen ez bada.

19. artikulua. Arau-hauste astunak

Ordenantza honen ondoreetarako, arau-hauste astuntzat hartuko dira honako hauek:

a) Ustez arau-hauste astuna egiteagatik zehapen-espediente ireki aurreko 12 hilabeteetan hiru arau-hauste arin egitea. Horretarako, egindako arau-haustetzat hartuko dira kasuan kasuko zehapen-espedienteetan emandako administrazio-ebazpen irmoetan aitortutakoak.

b) Espazio publikoa modu berezian edo pribatiboan erabiltzeagatik edo gaitzeko baimena edo lizentzia emateagatik dagozkion kontraprestazio ekonomikoak ez ordaintzea. Arau-hauste horrek dagokion zehapen-espedientea irekitzea ekarriko du, zerga-bilketako prozeduretatik eratorritako erantzukizun ekonomikoak alde batera utzi gabe.

c) Ez betetzea ikuskapen-zerbitzuaren eta udal-agintarien eskaerak.

d) Ez betetzea jarduera arau-hausleak gerarazteko eskaera.

e) Baimendutako jardueraren eta/edo erabileraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegururik ez izatea, hori nahitaezkoa denean.

f) Espazio publikoan baimendutako elementuak (kaleko salmenta-postuak, etab.) ezarritako ordutegian ez kentzea.

g) Araudiaren arabera larritzat jotako osasuneko eta/edo kontsumoko arau-hausteen aldi berean gertatzen diren arau-haustek.

20. artikulua. Arau hauste oso astunak

Ordenantza honen ondoreetarako, arau-hauste oso astuntzat hartuko dira honako hauek:

a) Ustez arau-hauste astuna egiteagatik zehapen-espedientea ireki aurreko 12 hilabeteetan hiru arau-hauste arin egitea. Horretarako, egindako arau-haustetzat hartuko dira kasuan kasuko zehapen-espedienteetan emandako administrazio-ebazpen irmoetan aitortutakoak.

b) Espazio publikoa modu berezian edo pribatiboan erabiltzeagatik edo gaitzeko baimena edo lizentzia emateagatik dagozkion kontraprestazio ekonomikoak ez ordaintzea. Arau-hauste horrek dagokion zehapen-espedientea irekitzea ekarriko du, zerga-bilketako prozeduretatik eratorritako erantzukizun ekonomikoak alde batera utzi gabe.

c) Ez betetzea ikuskapen-zerbitzuaren eta udal-agintarien eskaerak.

d) Ez betetzea jarduera arau-hausleak gerarazteko errekerimendua.

e) Baimendutako jardueraren eta/edo erabileraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegururik ez izatea, hori nahitaezkoa denean.

f) Espazio publikoan baimendutako elementuak (kaleko salmenta-postuak, etab.) ezarritako ordutegian ez kentzea.

g) Araudiaren arabera larritzat jotako osasuneko eta/edo kontsumoko arau-hausteen aldi berean gertatzen diren arau-haustek.

21. artikulua. Zehapenak

1. Isunekin zehatuko dira ordenantza honetako arau-haustek, eskala hauekin bat etorritz:

- Falta arinengatik 750,00 euro arteko isuna ezarriko da.
- Falta astunengatik 750,01 euro eta 1.500,00 euro bitarteko isuna ezarriko da.
- Falta oso astunengatik 1.500,01 eurotik gorako eta 3.000,00 euro bitarteko isuna ezarriko da, eta lizentzia baliogabetzeko aukera ere egongo da.

2. Isunak mailakatu egingo dira, zehapen-espedientearen instrukzioan hauteman daitezkeen inguruabar zehatzen haztapenak alde batera utzi gabe. Ez-betetze zehatzaren garrantziaren arabera mailakatuko dira, arau-haustek honako alderdi hauei zenbateraino eragin dien kontuan hartuta: espazio publikoaren erabilera orokorrera, udal-zerbitzu publikoen garapen normala, bizikidetzat publikoko harremana eta kontsumitzaileei eragindako kalteak.

3. Baldin eta agintaritza-agenteei arau-haustek saihesteko egindako ohar eta eskaerei jaramonik egiten ez bazaie, hori bereziki hartuko da kontuan zehapenen zenbateko zehatza finkatzerakoan, baina arau-hauste propio edo tipikoaren xede izan daitezke, ordenantza honetan xedatutakoa aplikatuz emandako agintaritza-agenteen aginduak desobeditzen badira, betiere arau-hauste penala ez bada.

4. Nolanahi ere, proportzionaltasun-printzipioa hartuko da kontuan zehapenen zenbatekoa zehazteko, eta, aipatutako inguruabarrez gain, nahitasuna, berrerortzea eta errepikatzea hartuko dira aintzat.

22. artikulua. Zehapen osagarriak

Espedientea ebazteko ardura duen organoak erabaki ahal izango du, zehapen gehigarri gisa, konfiskatzea salgai faltsifikatuak, iruzurrezkoak, identifikatu gabeak edo betetzen ez dituztenak salgai jartzeko gutxieneko baldintzak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Ordenantza hau indarrean jartzean indarrean dagoen kaleko salmentarako baimena dutenek baimen horretan ezarritakoari jarraituko diote. Aurrekoa gorabehera, baimen hori ordenantza honetan ezarritako erregulazioarekin bat ez badator, hura egokitzeko gehienez ere 12 hilabeteko epea izango dute ordenantza indarrean jartzen denetik, udalak horretarako adierazitako prozeduraren arabera.

2. Kaleko salmentarako baimen berri oro, bai eta lehendik daudenak berrituz gero ere, ordenantza honi egokituko zaio, indarrean jarri ondoren.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jarritakoan, indargabeturik geratuko dira beraren aurka dauden, berarekin bat ez datozen edo bateragarriak ez diren xedapen guztiak

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, 2022ko abuztuaren 2an udalaren osoko bileran onetsia, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA**ZUIAKO AZOKETAN SALTZEKO ESKABIDEAREN INPRIMAKI NORMALIZATUA/
IMPRESO NORMALIZADO DE SOLICITUD DE VENTA EN MERCADOS DE ZUIA**

IZENA / NOMBRE:

NAN / DNI:

HELBIDEA / DIRECCIÓN:

TELEFONOA / TELÉFONO:

HELBIDE ELEKTRONIKOA / EMAIL:

ZEIN AZOKATAN PARTE HARTU NAHI DEN / MERCADO EN EL QUE SE QUIERE PARTICIPAR:

.....

ADIERAZTEN DU / EXPONE

Ikusi egin dudala Zuiako azokan 2022. urtean salmentan aritzeko postuak esleitzeko deialdia egin dela eta, deialdi hori eraentzen duten oinarriak kontuan hartuta,

Que a la vista de la convocatoria para la adjudicación de puestos de venta en el mercado de Zuia durante el año 2022, y teniendo en conocimiento de las bases que rigen dicha convocatoria,

ESKATZEN DU / SOLICITA

Esleitu dakidala postu bat Zuiako azokan. Horretarako, dokumentu hauek erantsi ditut, eta egiazkoak direla ziurtatzen dut:

Me sea adjudicado un puesto en el mercado, y para ello se adjuntan los siguientes documentos cuya veracidad certifico:

☐ Salpostua eskatzeko inprimaki normalizatua / Impreso normalizado de solicitud de puesto de venta

☐ Erantzunkizunpeko adierazpena (II eranskina) / Declaración responsable (Anexo II)

Dokumentu hau sinatuta, baimena ematen zaio Zuiako Udalari espediente hau izapidetzeko behar-beharrezkoak diren eta beste administrazio batzuen esku dauden datuen kontsultak eta egiaztapenak egiteko, datuak elkartrukatzeko eskuragarri dauden baliabideak rehabilita, salbu eta zuk zeuk esanbidez ukatzen badiozu.

La firma del presente documento autoriza al Ayuntamiento de Zuia, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a realizar las comprobaciones y consultas estrictamente necesarias de los datos que obren en poder de cualquier Administración y que resulten precisos para la tramitación del presente expediente, salvo que usted se oponga expresamente.

BAIMEN HORI UKATZEKOTAN, DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DA / EN EL CASO DE OPOSICIÓN DEBERÁ APORTARSE LA DOCUMENTACIÓN CORRESPONDIENTE

EZ BADUZU NAHI UDALAK EGIAZTAPEN HORI EGITERIK, MARKATU X BATEZ JARRAIAN AGERI DEN KOADROTIXOA / SI USTED SE OPONE A DICHA COMPROBACIÓN MARQUE CON UNA X EN EL SIGUIENTE RECUADRO:

Ez dut nahi / Me opongo ☐

Zuian, 2022ko(a)ren(ea)n

Zuia, de de 2022

Izenpea / Firma

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «kontratazioaren kudeaketa» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla:

1. Arduraduna: Zuiako Udala.

2. Helburua: kontratazio publikoko prozedura kudeatzea fase guztietan, honako hauek barne: exekuzioa, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, bai eta esleipen-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakiak, eta kontratistari egotz dakizkiokeen gorabeherak, baldin eta kontratua suntsiaraztea eragin badute.

3. Legitimazioa: beharrezko tratamendua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko eta tratamenduaren ardura duen organoari aplika dakiokeen legezko betebeharrak betetzeko.

4. Hartzaileak: datu pertsonalak interes legitimoa duenari eta Zuiako Udalari eman ahal izango zaizkie.

5. Eskubideak: zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eskubidea ere.

II. ERANSKINA / ANEXO II**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE**

IZENA / NOMBRE:

NAN /DNI:

ADIERAZTEN DU / DECLARA

Pertsona eskatzaileak eta pertsona titularkideek bete egin dituztela Zuiako salmenta ibiltarian arautzen duten udal araudian xedatutako betekizun guztiak.

Que la persona solicitante y las personas cotitulares cumplen con los requisitos para la venta exigidos en la normativa municipal que regula la venta ambulante de Zuia.

Eta egoki den lekuan jaso dadin, hau izenpetu dut /Y para que conste donde proceda, así lo firma:

Zuia, 2022ko(a)ren (ea)n

Zuia, de de 2022

Izenpea / Firma

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «kontratazioaren kudeaketa» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla:

1. Arduraduna: Zuiako Udala.

2. Helburua: kontratazio publikoko prozedura kudeatzea fase guztietan, honako hauek barne: exekuzioa, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, bai eta esleipen-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakiak, eta kontratistari egotz dakizkiokeen gorabeherak, baldin eta kontratua suntsiaraztea eragin badute.

3. Legitimazioa: beharrezko tratamendua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko eta tratamenduaren ardura duen organoari aplika dakiokkeen legezko betebeharrak betetzeko.

4. Hartzaileak: datu pertsonalak interes legitimoa duenari eta Zuiako Udalari eman ahal izango zaizkie.

5. Eskubideak: zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eskubidea ere.

PRODUKTUEN ZERRENDA / LISTA DE PRODUCTOS

TELEFONOA /TELEFONO:

This image shows a full page of primary-ruled paper. It features multiple sets of horizontal lines designed to guide handwriting. Each set consists of three lines: a solid top line, a dashed midline, and a solid bottom line. These sets are repeated vertically down the entire page, providing a template for practicing letter formation and alignment. The paper is otherwise blank, with no margins or additional markings.